

GIPUZKOAKO PARKE ZIENTIFIKOA ETA TEKNOLOGIKOA, SA-RI
APLIKA DAKIOKEEN ARAUDI NAGUSIA
(aurrerantzean GPZT)

Jarraian adieraziko da GPZTri aplikagarria zaion araudia, baina argitu behar da adierazpen-mailakoa baino ez dela, ez mugatzailea, ia ezinezkoa baita GPZTri aplikagarri zaizkion arauen zerrenda zehatza egitea, omisio-arriskurik gabe; izan ere, jarduera-eremuaren arabera, Zuzenbidearen hainbat adar aplika litezke, eta maila desberdinetakoak, Espainiako Konstituziotik hasi, besteak beste, GPZT osatzen duten pertsonen oinarrizko eskubideei dagokienez, Europako zuzentarauak, eta maila txikiagoko udal-agindu eta ordenantzetaraino.

Honako xedapen hauek aipa ditzakegu, baina, berriz diogu, adibide zerrenda baino ez da, hortaz, ez da mugatzailea:

- 1) Araudi propioen arloan honako hauek adierazi behar dira:
 - .- 333/ 1993 Dekretua, abenduaren 28koa, Parque Científico y Tecnológico de Gipuzkoa-Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea.S.A sozietatearen funtzionamendu -arauei buruzkoa.
 - .- Sozietatearen estatutuak.
- 2) Bigarrenik, GPZTk, sozietate anonimoa den aldetik, mota horretako sozietateei aplika dakizkiekeen zuzenbide pribatuko arauak bete behar ditu, eta, beraz, merkataritza-sozietateei aplikatu beharreko legeriaren mende dago bere jardueran eta funtzionamenduan.
 - .- 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 3) Horrez gain, adierazi behar dugu GPZT, bere osotasunean sektore publikoko erakundeek osatzen duten sozietate publikoa denez, eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren mende dagoenez, Sektore Publikoaren parte dela, ondorioz, sozietate publikoei aplika dakiekeen estatuko eta autonomia-erkidegoko legeriari lotuta dagoela, eta honako xedapen hauek nabarmendu behar dira:

Estatuko legeria:

- .- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Orokorra.
- .- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentzarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duena.
- .- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

EAEko berezko araudia:

- .- 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoari buruzkoa.
 - .- 3/2016 Legea, apirilaren 7koa, kontratazio publikoan zenbait klausula sozial sartzeko.
 - .- 116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazio-araubideari buruzkoa.
 - .- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
 - .- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen 2022ko martxoaren 3ko 1/2022 Legearen azken xedapenetako laugarrena, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina aldatzen duena.
 - .- 2/2007 Legegintzako Dekretua, azaroaren 6koa, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 4) Era berean, sozietatearen jardueran duten garrantziagatik, honako hauek aipatu behar dira:
- .- Zigor Kodea, pertsona juridikoen erantzukizun penalari dagokionez, arrisku penalak prebenitzeko sistemak eta etika edo zintzotasun sistemak ezartzearekin batera.
 - .- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.
 - .- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
 - .- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
 - .- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.
 - .- Eta abar.

GPZTk IPARBILBAO ABOGADOS, S.L.P.rekin du kontratatuta zerbitzu juridikoa, eta sozietateak hala eskatuta, aplikagarri izan daitezkeen legezko eta arauzko baldintzak identifikatzen ditu.

IPARBILBAO ABOGADOS, S.L.P.k berrikusia, 2023ko maiatzaren 17an.